



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 4a

3. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Aranguren Ibarreko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina
(2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Aranguren Ibarreko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Aranguren Ibarreko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Aranguren Ibarreko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. 2015eko kontu orokorrari buruzko iritzia (5. or.).

II.1. Auditoria finantzarioko iritzia (6. or.).

II.2. Legezkotasuna betetzeari buruzko iritzia (6. or.).

III. Udalaren 2015eko kontu orokorraren laburpena (7. or.).

III.1. 2015eko aurrekontuaren betetzeari buruzko egoeraoria (7. or.).

III.2. 2015eko aurrekontu-emaizta (8. or.).

III.3. Diruzaintza-gerakina 2015eko abenduaren 31n (8. or.).

III.4. 2015eko abenduaren 31ko balantze-egoera (9. or.).

III.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2015ean (10. or.).

IV. Oharpenak, iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (11. or.).

IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2015eko abenduaren 31n (11. or.).

IV.2. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (14. or.).

IV.3. Alderdi orokorrak (14. or.).

IV.4. Langileak (15. or.).

IV.5. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (16. or.).

IV.6. Transferentzien ondoriozko gastuak (17. or.).

IV.7. Inbertsioak (18. or.).

IV.8. Aurrekontuko diru-sarrerak (19. or.).

IV.9. Hirigintza (20. or.).

Eranskina: Udalaren 2015eko kontu orokorraren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2016rako jarduketa-programari jarraituz, Aranguren Ibarreko Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorrak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek, funtsean: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoa.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Aranguren Ibarreko Udalar 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparruak, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraukortasunaren arloko araudia ere.

Aranguren Ibarreko udalerrriak 40 km²-ko azalera du, eta 2015eko urtarrilaren 1ean 9.398 biztanle dauzka. Honako herri hauek osatzen dute: Aranguren, Labio, Taxoare, Zolina, Ilundain, Gongora, Lakidain eta Mutiloa.

Udalak kudeatzen ditu ibarreko herrien eskumen guztiak, ibarreko kontzejuek, beren borondatez, eskumenak Udalar eskuordetu ondoren eta Mutiloagoiti eta Mutiloabeiti kontzejuek bateratze bidez desegin ondoren.

2015eko ekitaldia ixtean, Udalaren funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

| Entitatea | Aitortutako betebeharrak | Aitortutako eskubideak | Langileak, 2015-12-31n |
|-----------|--------------------------|------------------------|------------------------|
| Udala | 9.851.596 | 9.314.423 | 76 |
| Guztira | 9.851.596 | 9.314.423 | 76 |

Udalak ez du ez erakunde autonomorik ez toki-enpresa publikorik.

Udala, gainera, honako hauetako kidea da:

a) Iruñerriko Mankomunitatea: haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-*hondakin* solidoen kudeaketa eta tratamendua eta eskualdeko hiri-garraioari dagozkion zerbitzuak eta taxi-zerbitzuak. Mankomunitate horretako kide izatearen ondoriozko gastuak 135.709 eurokoak izan dira guztira 2015ean.

b) Horrez gain, Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoan eta Nafarroako Udal Informatikaren Elkartean (Animsa) parte hartzen du.

Hurrengo taulan laburbilduta ageri dira ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua:

| Zerbitzua | Udala | Mankomunitatea | Zerbitzu kontratuak |
|---|-------|----------------|---------------------|
| Zerbitzu administratibo orokorrak | X | | |
| Udal albienteak | X | | |
| Hilerria | X | | |
| Oinarrizko gizarte-zerbitzua | X | | |
| Etxez etxeko laguntza-zerbitzua | X | | |
| Haur Eskolak 0-3 urte bitartean | | | X |
| Musika Eskola | | | X |
| Hirigintza | X | | X |
| Lorategiak | X | | |
| Hiri hondakinak | | X | |
| Ur-homidura | | X | |
| Eskualdeko garraio publikoa | | X | |
| Aranguren Ibarreko garraio publikoa | | | X |
| Liburutegia | X | | |
| Jubilatuen Kluba | X | | |
| Jubiloteka-jantoki osasungarria | | | X |
| Ludoteka | | | X |
| Kaleen eta bideen mantentze-lanak | X | | |
| Argiteria publikoaren mantentzea | X | | |
| Kale garbiketa | X | | |
| Udal eraikinen garbiketa | X | | |
| Kirolak | X | | |
| Kirol jardueren kudeaketa | | | X |
| Udal-kiroldegiak | X | | |
| Internet-udal telebista | X | | |
| Euskara | X | | |
| Kultura | X | | |
| Gazteria | | | X |
| Ingurumena | X | | |
| Babestutako enplegu soziala | X | | |
| Enpleguaren sustapena | X | | |
| Diru-bilketa exekutiboa | | | X |
| Familien arretarako zentroaren laguntza juridikoa | | | X |

Entitatearen aurrekontua 2014ko abenduaren 23an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, Udalaren 2015eko kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu, eta hirugarrenean Udalaren egoera-orri garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Azkenik, laugarrenean, gure iritzian eraginik ez duten alderdiei buruzko oharra jaso ditugu (Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta alderdi orokorrak), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun arlokako iruzkin, ondorio eta gomendioak ere.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2015eko ekitaldiko kontu orokorreari buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Aranguren Ibarreko Udaleko langileei lan hau egiteko eman ditugun laguntzarengatik.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak Aranguren Ibarreko Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, alegazioak aurkez zitzaizkion. Jarritako epea iraganda, ez dugu alegaziorik jaso.

II. 2015eko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Aranguren Ibarreko Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako hirugarren atalean.

Udalaren erantzukizuna

Kontu-hartzailera da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontuak halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptzioa, ezarpena eta mantentzea.

2016ko maiatzaren 30eko Osoko Bilkurak 2015eko kontuak onetsi zituen.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolen sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu Kanpo Kontrolako Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritako printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako aldeko iritzia eratoritzen da.

II.1. AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

IRITZIA

Gure iritziz, erantsitako kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, hots, Udalaren ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioari eta 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian izandako emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

III. UDALAREN 2015eko KONTU OROKORREN LABURPENA

Ondoren azaltzen dira 2015eko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak.

III.1. 2015eko AURREKONTUAREN BETETZEARI BURUZKO EGOERAORRIA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

| Deskribapena | Hasierako aurreikuspena | Aldak. | Behin betiko aurreikuspena | Aitortutako betebeharrak | Betetakoa (%) | Ordainketak | Ordainketak (%) | Ordaintzeko dagoena |
|--|-------------------------|------------------|----------------------------|--------------------------|---------------|------------------|-----------------|---------------------|
| 1. Langile-gastuak | 2.500.500 | 55.000 | 2.555.500 | 2.520.374 | 99 | 2.520.374 | 100 | 0 |
| 2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak | 4.908.900 | -20.000 | 4.888.900 | 4.650.806 | 95 | 4.268.784 | 92 | 382.022 |
| 3. Gastu finantzarioak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 4. Transferentzia arruntak | 549.100 | | 549.100 | 482.506 | 88 | 387.710 | 80 | 94.796 |
| 6. Inbertsio errealak | 1.359.000 | 1.133.107 | 2.492.107 | 1.542.441 | 62 | 1.286.465 | 83 | 255.976 |
| 7. Kapital-transferentziak | 621.000 | 45.000 | 666.000 | 655.469 | 98 | 429.402 | 66 | 226.067 |
| 8. Finantza-aktiboak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 9. Finantza-pasiboak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 9.938.500 | 1.213.107 | 11.151.607 | 9.851.596 | 88 | 8.892.735 | 90 | 958.861 |

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

| Deskribapena | Hasierako aurreikuspena | Aldak. | Behin betiko aurreikuspena | Aitortutako eskubideak | Betakoa (%) | Kobrantzak | Kobranta (%) | Kobratzeko dagoena |
|--------------------------------------|-------------------------|------------------|----------------------------|------------------------|-------------|------------------|--------------|--------------------|
| 1. Zuzeneko zergak | 2.975.000 | | 2.975.000 | 3.292.137 | 111 | 2.914.354 | 89 | 377.783 |
| 2. Zeharkako zergak | 450.000 | | 450.000 | 463.405 | 103 | 348.263 | 75 | 115.142 |
| 3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak | 2.073.500 | | 2.073.500 | 2.122.455 | 102 | 2.107.466 | 99 | 14.989 |
| 4. Transferentzia arruntak | 2.305.000 | | 2.305.000 | 2.371.408 | 103 | 2.235.926 | 94 | 135.482 |
| 5. Ondare bidezko diru-sarrerak | 155.000 | | 155.000 | 142.271 | 92 | 118.068 | 83 | 24.203 |
| 6. Inbertsio errealak beste-erentzea | 1.345.000 | | 1.345.000 | 227.986 | 17 | 227.986 | 100 | 0 |
| 7. Kapital-transferentziak | 635.000 | | 635.000 | 694.762 | 109 | 137.740 | 20 | 557.022 |
| 8. Finantza-aktiboak | 0 | 1.213.107 | 1.213.107 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 9. Finantza-pasiboak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 9.938.500 | 1.213.107 | 11.151.607 | 9.314.423 | 84 | 8.089.802 | 87 | 1.224.621 |

III.2. 2015eko AURREKONTU-EMAITZA

| Kontzeptua | 2014 | 2015 |
|---|----------------|------------------|
| + Aitortutako eskubideak | 11.868.818 | 9.314.423 |
| - Aitortutako betebeharrak | 11.482.590 | 9.851.596 |
| Aurrekontu-emaiza | 386.227 | (537.173) |
| Doikuntzak | | |
| - Finantzaketaren desbideratze positiboak | (393.876) | (471.972) |
| + Finantzaketaren desbideratze negatiboak | 604.699 | 357.917 |
| + Diruzaintza-gerakinarekin txertaketa bidez finantzatutako gastuak | 129.920 | 50.695 |
| + Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak | 0 | 0 |
| Aurrekontu-emaiza doitua | 726.970 | (600.532) |

III.3. DIRUZAINZTA-GERAKINA 2015eko ABENDUAREN31n

| Kontzeptua | 2014 | 2015 |
|---|------------------|------------------|
| (+) Kobratzeko dauden eskubideak | 1.846.474 | 1.818.548 |
| (+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia | 2.309.268 | 1.224.621 |
| (+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak | 1.890.508 | 2.756.203 |
| (+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak | 52.670 | 32.577 |
| (+) Gastuen itzulketak | 861 | 0 |
| (-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak | 0 | 0 |
| (-) Bilketa zaileko eskubideak | 2.406.833 | 2.194.853 |
| (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak | 1.607.268 | 1.313.211 |
| (+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia | 1.173.628 | 958.861 |
| (+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak | 252.228 | 170.133 |
| (+) Diru-sarreren itzulketak | 0 | 0 |
| (-) Aplikatzeko dauden gastuak | 0 | 0 |
| (+) Aurrekontuz kanpoko gastuak | 181.412 | 184.218 |
| (+) Diruzaintzako funts likidoak | 1.635.484 | 986.267 |
| (+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak | 0 | 0 |
| Diruzaintza-gerakina, guztira | 1.874.690 | 1.491.605 |
| Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta | 1.158.111 | 800.194 |
| Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina | 0 | 0 |
| Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina | 716.578 | 691.410 |

III.4. 2015eko ABENDUAREN 31ko BALANTZE-EGOERA

Aktiboa

| Deskribapena | 2014 | 2015 |
|---|--------------------|--------------------|
| A Ibilgetua | 182.137.417 | 183.451.872 |
| 1 Ibilgetu materiala | 169.386.462 | 169.585.845 |
| 3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak | 12.750.954 | 13.866.026 |
| C Zirkulatzaila | 5.885.790 | 4.995.361 |
| 8 Zordunak | 4.253.306 | 4.009.079 |
| 9 Finantza-kontuak | 1.632.484 | 986.281 |
| Aktiboa, guztira | 188.023.207 | 188.447.232 |

Pasiboa

| Deskribapena | 2014 | 2015 |
|---|--------------------|--------------------|
| A Funts berekiak | 186.415.939 | 187.134.022 |
| 1 Ondarea eta erreserbak | 174.233.587 | 174.233.587 |
| 2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina) ^(*) | 2.265.869 | 2.328.750 |
| 3 Kapitaleko diru-laguntzak | 9.916.484 | 10.571.685 |
| D Epe laburreko hartzekodunak | 1.607.268 | 1.313.211 |
| 5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak | 1.607.268 | 1.313.211 |
| Pasiboa, guztira | 188.023.207 | 188.447.232 |

(*) 2015ean ez zen 2014ko emaitza kasuko erreserba-kontuetara aldatu; horrenbestez, 2014koaren eta 2015ekoaren batura agertzen da ekitaldiko emaitza gisa.

III.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2015ean

Ekitaldiko emaitza arruntak

| Zor | 2014 | 2015 | Hartzeko | 2014 | 2015 |
|--|-------------------|------------------|--|-------------------|------------------|
| 3 Hasierako izakinak | 0 | 0 | 3 Amaierako erosketak | 0 | 0 |
| 39 Izakinen balio-galtzeen hornidura | 0 | 0 | 39 Izakinen balio-galtzeen hornidura | 0 | 0 |
| 60 Erosketak | 0 | 0 | 70 Salmentak | 1.986.612 | 1.947.601 |
| 61 Langile-gastuak | 2.536.119 | 2.596.436 | 71 Ondasunaren eta enpresaren errenta | 449.869 | 294.856 |
| 62 Finantza-gastuak | 0 | 0 | 72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak | 2.557.519 | 2.650.979 |
| 63 Tributuak | 0 | 0 | 73 Errentaren gaineko zerga arruntak | 577.477 | 595.572 |
| 64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak | 4.535.951 | 4.574.743 | | | |
| 65 Gizarte prestazioak | 0 | 0 | 75 Ustiapenerako diru-laguntzak | 0 | 0 |
| 66 Ustiapenerako diru-laguntzak | 0 | 0 | 76 Transferentzia arruntak | 2.323.449 | 2.371.408 |
| 67 Transferentzia arruntak | 479.614 | 482.506 | 77 Kapitalaren gaineko zergak | 902.255 | 508.991 |
| 68 Kapital-transferentziak | 610.470 | 655.469 | 78 Bestelako diru-sarrerak | 1.615.459 | 61.829 |
| 69 Amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak | 0 | 0 | 79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak | 0 | 0 |
| 80 Ekitaldiaren emaitza korrontea (saldo hartzekoduna) | 2.250.486 | 122.081 | Ekitaldiaren emaitza korrontea (saldo zorduna) | 0 | 0 |
| Guztira | 10.412.640 | 8.431.236 | Guztira | 10.412.640 | 8.431.236 |

Ekitaldiko emaitzak

| Deskribapena | 2014 | 2015 | Deskribapena | 2014 | 2015 |
|---|------------------|----------------|--|------------------|----------------|
| 80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna) | 0 | 0 | 80 Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo hartzekoduna) | 2.250.486 | 122.081 |
| 82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna) | (1.047) | (5.549) | 82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo hartzekoduna) | 0 | 0 |
| 83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna) | 0 | 0 | 83 Balore-zorroaren emaitzak (Saldo hartzekoduna) | 0 | 0 |
| 84 Itxitako aurrekontuetako esku-bide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna) | 0 | 64.749 | 84 Itxitako aurrekontuetako esku-bide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna) | 14.337 | 0 |
| 89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna) | 2.265.869 | 62.881 | 89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna) | 0 | 0 |
| Guztira | 2.264.822 | 122.081 | Guztira | 2.264.822 | 122.081 |

IV. OHARPENAK, IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Ondoren, azterketa labur bat egiten dugu Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioari buruz, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruz eta aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipenari buruz; gainera, kudeaketa-arlo garrantzitsu bakoitzari buruzko iruzkin nagusiak eta, Ganberaren iritziz, Udalak aintzat hartu beharko lituzkeen gomendio nagusiak ere aztertzen dira, bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetze aldera.

IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2015eko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 9,93 milioi euroko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 12 —hau da, 1,2 milioi euro— handitu da aurrekontu-aldaketan bitartez: Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 11,15 milioikoak dira. Aldaketa hauek, funtsean, inbertsioen kapitulan dute eragina.

Aitortutako betebeharrak 9,85 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 88ko betetze-maila izan dute. Maila horren arrazoiak da gastu gutxiago egin izana, batez ere inbertsioetan; izan ere azken horiek aurreikusitakoaren ehuneko 62 dira.

Aitortutako eskubideak 9,31 milioikoak dira, ehuneko 84ko betetze-mailarekin. Portzentaje hori, kapitulu gehienetan likidazioa ehuneko ehunetik gorakoa izan bada ere, jaitsi egin da, zeren eta ez baitira egin aurreikusita zeuden inbertsio errealak —aurreikusitakoaren ehuneko 17 baizik ez da bete— eta aurrekontu-aldaketak diruzaintza-gerakinekin egin baitira.

Izaerari begiratuta, gastuen ehuneko 78 eta diru-sarreraren ehuneko 90 arruntak dira.

Taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren Udalak gastatutako 100 eurotik bakoitza:

| Gastuaren izaera | Zenbatekoa | Finantza iturria | Zenbatekoa |
|--------------------------|------------|--|------------|
| Langileak | 26 | Tributu bidezko diru-sarrerak | 63 |
| Bestelako gastu arruntak | 52 | Transferentziak | 33 |
| Kapital-eragiketak | 22 | Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak | 4 |
| Finantza-zama | 0 | Zorduntzea | 0 |
| | 100 | | 100 |

Hona Udalaren 2015erako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2014koarekiko alderaketa:

| | 2014 | 2015 | 2015/2014 aldea (%) |
|--|------------|-----------|---------------------|
| Aitortutako betebeharrak, guztira | 11.482.590 | 9.851.596 | -14 |
| Likidatutako eskubideak, guztira | 11.868.818 | 9.314.423 | -22 |
| Gastuen betetzea (%) | 93 | 88 | -5 |
| Diru-sarreren betetzea (%) | 96 | 84 | -13 |
| Ordainketak (%) | 90 | 90 | |
| Kobratutakoa (%) | 81 | 87 | |
| Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era) | 7.551.684 | 7.653.686 | 1 |
| Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak) | 7.551.684 | 7.653.686 | 1 |
| Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak) | 3.930.906 | 2.197.910 | -44 |
| Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak) | 0 | 0 | 0 |
| Gastu arruntak (1etik 5era) | 8.817.865 | 8.391.676 | -5 |
| Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era) | 6.260.037 | 5.877.997 | -6 |
| Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak) | 3.050.952 | 922.747 | -70 |
| Diru-laguntzen menpekotasunak (%) | 34 | 33 | |
| Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%) | % 83 | % 77 | -7 |
| Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa | 386.227 | -537.173 | -239 |
| Aurrekontu-emaizta doitua | 726.970 | -600.532 | -183 |
| Aurrezki gordina | 1.266.181 | 737.990 | -42 |
| Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak) | 0 | 0 | 0 |
| Aurrezki garbia | 1.266.181 | 737.990 | -42 |
| Zorpetze-maila (%) | 0 | 0 | 0 |
| Zorpetze-muga (%) | 14 | 9 | |
| Zorpetze-ahalmena (%) | 14 | 9 | |
| Diruzaintza-gerakina, guztira | 1.874.690 | 1.491.605 | -20 |
| Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina | 716.578 | 691.415 | -4 |
| Zor bizia | 0 | 0 | 0 |

2015ean, Udalak ehuneko 14 gutxiago gastatu du; diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 22 txikiagoak izan ditu.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko bateko igoera izan da; eta diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko bost egin dute behera. Tributu izaerako diru-sarrerak ehuneko sei jaitsi dira.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioak -537.173 euro egiten du.

Aurrekontu-emaizta doitua -600.532 eurokoa da.

2015ean, bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak 737.990 euro egiten dute.

Udalak zorrik ez dauka, eta haren zorpetzearen muga ehuneko bederatzikoa da; horregatik, hain zuzen, badu zorpetze berria hartzeko ahalmen ekonomikoa.

Diruzaintzako guztizko gerakina 1,5 milioikoa da, eta ehuneko 20 egin du behera 2014koarekin alderatuta. Gastu orokorretara bideratutakoa, halaber, 691.415 eurokoa da.

Honakoa izan da Aranguren Ibarreko Udalaren diru-sarreraren eta gastuen bilakaera 2006-2015 aldian —aldi horretatik Ganbera honek 2014ko eta 2015eko ekitaldiak fiskalizatu ditu—:

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

| Kapitulu- lua | Izena | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|------------------|---|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|------------------|
| 1 | Zuzeneko zergak | 2.775.564 | 3.341.621 | 3.112.189 | 3.006.829 | 2.734.177 | 3.039.369 | 3.545.621 | 3.396.440 | 3.671.714 | 3.292.137 |
| 2 | Zeharkako zergak | 531.948 | 1.915.588 | 535.583 | 2.181.463 | 1.000.703 | 1.238.292 | 757.898 | 465.014 | 365.536 | 463.405 |
| 3 | Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerara batzuk | 1.500.479 | 1.867.561 | 1.693.357 | 1.804.931 | 1.865.826 | 1.898.571 | 2.187.206 | 2.107.678 | 2.222.786 | 2.122.455 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 1.617.744 | 1.734.922 | 1.937.069 | 2.174.172 | 2.288.058 | 2.199.942 | 2.193.803 | 2.185.009 | 2.323.449 | 2.371.408 |
| 5 | Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua | 177.968 | 418.382 | 449.678 | 447.233 | 1.068.590 | 341.590 | 241.130 | 191.112 | 234.380 | 142.271 |
| 6 | Inbertsio errealen besterentzea | 6.637.630 | 3.776.696 | 15.755.473 | 708.823 | 6.230.302 | 1.002.330 | 562.260 | 580.341 | 1.369.732 | 227.986 |
| 7 | Kapital-transferentziak | 7.312.866 | 14.746.894 | 5.489.404 | 3.708.934 | 2.523.501 | 3.933.416 | 7.912.479 | 1.824.383 | 1.681.220 | 694.762 |
| 8 | Finantza-aktiboak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 9 | Finantza-pasiboak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | | 20.554.199 | 27.801.663 | 28.972.753 | 14.032.385 | 17.711.157 | 13.653.509 | 17.400.398 | 10.749.977 | 11.868.818 | 9.314.423 |

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

| Kapitulu- lua | Izena | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|------------------|---|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|------------------|
| 1 | Langile-gastuak | 2.036.202 | 2.196.410 | 2.676.502 | 2.988.254 | 2.934.744 | 2.879.054 | 2.854.617 | 2.401.692 | 2.466.842 | 2.520.374 |
| 2 | Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak | 3.203.206 | 3.574.332 | 4.102.819 | 4.489.036 | 4.770.062 | 4.791.880 | 4.994.607 | 4.822.443 | 4.605.228 | 4.650.806 |
| 3 | Finantza-gastuak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 394.362 | 402.189 | 531.312 | 532.589 | 592.235 | 590.957 | 729.380 | 495.250 | 479.614 | 482.506 |
| 6 | Inbertsio errealak | 8.130.169 | 23.972.248 | 21.995.669 | 3.885.793 | 5.808.918 | 7.099.603 | 9.785.431 | 2.744.308 | 3.320.436 | 1.542.441 |
| 7 | Kapital-transferentziak | 143.367 | 191.874 | 91.303 | 364.168 | 701.279 | 575.694 | 986.965 | 790.838 | 610.470 | 655.469 |
| 8 | Finantza-aktiboak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 9 | Finantza-pasiboak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | | 13.907.307 | 30.337.052 | 29.397.604 | 12.259.840 | 14.807.238 | 15.937.187 | 19.351.000 | 11.254.531 | 11.482.590 | 9.851.596 |

Aranguren Ibarreko Udalaren biztanleria handitzen ari da eta 2001ean 4.050 biztanle izatetik 2015ean 9.398 biztanle izatera iragan da.

Logikoaenez, hazkunde hori urteko aurrekontu desberdinetan islatu da, bai biztanle berriei zerbitzua emateko behar izan diren inbertsioengatik eta haien finantzaketarengatik, bai eta funtzionamenduko gastu eta diru-sarreraren igoerarengatik ere.

Nabarmendu beharra dago Udalak 2006tik 2015era guztira 87,2 milioi euro egiten duten inbertsioak egin dituela zorpetze finantzariora jo behar izan gabe.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da (ikus oroitidazkia) 2011tik 2015era.

| Adierazlea | 2011 | 2015 | 2015/2011 aldea (%) |
|--|-------|------|---------------------|
| Zorpetze-ahalmena | 5 | 9 | 80 |
| Inbertsio indizea | 45 | 16 | -65 |
| Gastu arrunta biztanleko | 1.089 | 814 | -25 |
| Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko | 814 | 625 | -23 |

Ikus daitekeen bezala, 2011tik 2015era hobera egin du zorpetze-ahalmenak, eta inbertsioek, gastu arruntek eta tributu bidezko diru-sarrerak, berriz, behera egin dute.

IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren bete-tzea aztertu dugu, haren hiru atal nagusiei dagokienez.

- Aurrekontu-egonkortasunaren araua: emaitza negatiboa da, ondoren adierazten dugun be-zala:

| Kontzeptua | 2015 |
|---|-------------|
| Emaitza finantzarioa (1. kapitulutik 7.era) | -537.172,51 |
| SEC dela-eta egindako doikuntza | 63.928,00 |
| Finantzaketa-beharrak | -473.244,51 |

- Gastuaren araua: 2015eko ekitaldiko gastu zenbakarria 1.780.268 euro txikiagoa da 2014ko ekitaldiko bano; horrenbestez, bete egiten da gastuaren araua:

| Kontzeptua | 2014 | 2015 |
|-------------------------------|------------|-----------|
| Gastua (1. kapitulutik 7.era) | 11.482.590 | 9.851.596 |
| Gastu zenbakarria | 11.482.590 | 9.851.596 |
| BPGaren erreferentziako tasa | % 1,3 | 0 |
| 2015eko gastu zenbakarria | 11.631.864 | 9.851.596 |

- Finantza-iraunkortasunaren araua: Udalak zorrik ez dauka.

Halaber, Udalak, oro har, betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak: 21 egunekoa da epea, gaur egun.

Oroitidazkian aipatzen den bezala, "egonkortasun-helburua betetzen ez denerako, Aurre-kontu-egonkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren 21. artikulua aipatzen du plan eko-nomiko finantzario bat egin beharra dagoela, ezarritako helburuak betetzeko bidea emanen du-ena.

Finantzaketa beharra etorri da ekitaldiko inbertsioak finantzatzeko ondare-salmentei bu-ruzko dagokion 6. kapituluaren betearazpen txikiagotik. Horrek ez dakar egiturazko-desoreka bat plan ekonomiko finantzario bat onestea eskatzen duenik, ez eta aurrekontu-oreka berresku-ratzeko diru-sarrerei eta gastuei buruzko neurriak hartzea ere, zeren eta automatikoki lortzen baita oreka hori diruzaintza-gerakinaren bitartez".

Araudiaren arabera, plan ekonomiko finantzario bat egin beharko litzateke, nahiz eta plan hori honako hau baizik ez izan: finantzaketa-beharra diruzaintza-gerakinaren bitartez orekatuko dela.

IV.3. ALDERDI OROKORRAK

2015eko abenduaren 31n Udala zenbait prozedura judizialetan sartuta dago; haietan, lurren balioaren gaineko zergaren likidazioaren kobratzea erreklamatzeko du: 261.000 euro egiten du likidazio horrek. Prozedura horiek, beste txosten batzuetan aipatu izan dugun bezala, zenbait udal ukitzen dituzte.

IV.4. LANGILEAK

Langileen gastua 2,52 milioi eurokoa da; hau da, 2015ean sortutako gastu guztien ehuneko 26 eta gastu arrunten ehuneko 33.

2014ko ekitaldiaren aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko bi handitu dira, honako xehetasunen arabera:

| | Aitortutako betebeharrak | | Aldea (%) |
|------------------------------|--------------------------|------------------|-----------|
| | 2014 | 2015 | |
| Funtzionarioak | 338.288 | 339.854 | 0 |
| Lan-kontratudun langileak | 1.405.545 | 1.457.054 | 4 |
| Bestelako langileak | 0 | 600 | 0 |
| Gizarte-zamak | 723.009 | 722.866 | 0 |
| 1. kapitulua, guztira | 2.466.842 | 2.520.374 | 2 |

Udalaren Osoko Bilkurak 2014ko abenduan eman zion hasierako onespena 2015eko plantilla organikoari. Behin betiko onespena 2015eko apirilaren 15eko NAOn argitaratu zen, akats batzuk aurkitu ondoren.

Plantilla organiko horretan 59 lanpostu daude jasota —horietatik 30 lanpostu bete gabe daude—, ondoko taula hauetan erakusten den bezala banatuta:

| | Lanpostu kopurua | Aktiboa | Lanpostu hutsak | Beteta dauden lanpostu hutsak |
|--------------------|------------------|-----------|-----------------|-------------------------------|
| Funtzionarioak | 9 | 6 | 3 | 3 |
| Lan-kontratupekoak | 47 | 20 | 27 | 25 |
| Izendapen askea | 3 | 3 | 0 | 0 |
| Guztira | 59 | 29 | 30 | 28 |

Bestalde, aldi baterako bi langile badaude, plantillan aurreikusi gabeko lanpostuak (liburutegia eta obrak) betetzen dituztenak, gizarte enplegua sustatzeko eta gazte bermerako kontratatutako 16 pertsonen gainera.

2015eko abenduaren 31n, Udalean 76 pertsonak egiten dute lan guztira. Hona xehetasunak:

| Langileak | Kopurua |
|---|-----------|
| Udaleko batzarkideak | 1 |
| Aldi baterako langileak - Izendapen askea | 3 |
| Funtzionarioak | 6 |
| Lan-kontratudun finkoak | 20 |
| Kontratu administratiboa dutenak | 28 |
| Aldi baterako lan-kontratudunak | 18 |
| Guztira | 76 |

Udalaren aipatutako langileak honako arloei daude atxikiak:

| Arloak | Kopurua |
|-----------------------------------|-----------|
| Kabinetea | 1 |
| Idazkaritza | 2 |
| Arlo ekonomikoa | 2 |
| Herritarrentzako arreta bulegoa | 4 |
| Gizarte zerbitzuak | 8 |
| Gizarteratzearen arloko langileak | 16 |
| Kirola | 2 |
| Kultura | 2 |
| Euskara | 1 |
| Mantentze-lanak | 7 |
| Kale garbiketa | 4 |
| Obrak | 4 |
| Lorezaintza | 8 |
| Ingurumena | 1 |
| Albienteak | 7 |
| Ikastetxe publikoa | 2 |
| Eraikinen garbiketa | 5 |
| Guztira | 76 |

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta erlazio-kategoriarako erabakitakoak direla eta egindako atxikpenak zuzenak direla. Egiaztatu dugu, halaber, 2015eko ekitaldian ez dela izan langileen eta zinegotzien soldata-igoerarik.

Aipa daiteke plantilla organikoan funtzionario izaeraz bestelako lanpostuak betetzen dituzten langile guztiek antzinasuna, gradua eta familia-laguntza direla-eta funtzionarioekin parekatzen dituzten lansari kontzeptu berdinak sortzen dituztela.

Gainera, egiaztatu da aldi baterako kontratuen izapidetzea egokia izan dela, eta horretarako zerrenda eguneratuak erabili direla.

2015eko enplegu eskaintza publikoak 29 lanpostu dauzka, baina haietarako deialdia ez da egin.

IV.5. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak 4,65 milioi euro egin dute 2015eko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 47 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 61 egiten dute. Horiek horrela, ehuneko bat igo da 2014ko ekitaldiarekiko.

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

| Deskribapena | Kontratu-mota | Esleipen prozedura | Lizitazioaren zenbatekoa | Eskaintzak egin dituztenak | Esleipenaren zenbatekoa |
|-----------------------------------|---------------|--|--------------------------|----------------------------|-------------------------|
| Luminariak eta zutabeak hornitzea | Hornidura | Publizitaterik gabe negoziatua Eskaintzarik onena | 59.965 | 2 | 59.578 |
| Kultur Etxerako laguntza teknikoa | Laguntza | Irekia Eskaintzarik onena | 94.000 | 3 | 84.600 |

Aurreko berrikuspenarekin eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bat aztertuta, egiaztatu da gastuak fakturekin eta ziurtagiriekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den kontratuei buruzko araudia arrazoiz errespetatu dela, bai eta kontratuen indarraldiak zuzenak direla ere.

IV.6. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Izaera hori duten gastuek 1,14 milioikoak izan dira: 2015ean sortutako gastu guztien ehuneko 12, transferentzia arrunten ehuneko bost eta kapital-transferentzien ehuneko zazpi egiten dute.

| | Aitortutako betebeharrak | | Aldea (%) 2014/2015 |
|--|--------------------------|------------------|------------------------|
| | 2014 | 2015 | |
| Toki entitateei | 159.698 | 136.736 | -14 |
| Enpresa pribatuei | 12.000 | 12.000 | 0 |
| Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei | 307.915 | 333.770 | 8 |
| 4. Transferentzia arruntak | 479.614 | 482.506 | 1 |
| Toki entitateei | 0 | 0 | - |
| Enpresa pribatuei | 0 | 0 | - |
| Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei | 610.470 | 655.469 | 7 |
| 7. Kapital-transferentziak | 610.470 | 655.469 | 7 |
| Guztira | 1.090.084 | 1.137.975 | 4 |

2014ko ekitaldiarekin alderatuz gero, gastu horiek ehuneko lau egin dute gora.

Honakoak dira 2015ean egindako transferentzia garrantzitsuenak:

| Onuraduna | Zenbatekoa |
|--|------------|
| Enplegu Plana | 515.468 |
| Iruñerriko Mankomunitatea | 135.709 |
| Mutilvera kirol elkartearekiko hitzarmena | 80.000 |
| Aranguren Televisiónekin egindako hitzarmena | 20.000 |
| Jubilatuen Kluba | 22.000 |

Udalak ez du diru-laguntzen plan estrategikorik, ez eta ordenantza orokorrik ere, nahiz eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak hori arautu zuen. Ematen dituen laguntza gehienak urtero berritzen diren hitzarmenen bitartezkoak dira. Onuradunek kasuko jarduerak egin izateari buruzko ziurtagiria aurkeztu behar dute, edo/eta jardueren oroitidazkia, diru-laguntzaren ordainketa jaso aurretik.

Gizarte laguntzen kasuan, baldintza batzuk badaude, baina ez berezko deialdi bat; hori dela eta, laguntzak eskatzen diren hurrenkeran ematen joaten dira, baldin eta baldintzetan eskatzen diren baldintzak betetzen badira.

Gomendatzen dugu diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat taxutzea eta haiei buruzko ordenantza orokorra onestea.

IV.7. INBERTSIOAK

2015. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (2,49 milioi) ehuneko 62 bete da, eta 1,54 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko 16.

Taulan 2006ko ekitalditik egindako inbertsioen bilakaera ikus daiteke. Nabarmenezkoa da 2007ko eta 2008ko kopuru aipagarria; hala eta guztiz ere, egungo esparru ekonomikoaren barruan, 2015eko gastua handia da beste udal batzuenaren aldean.

| Ekitaldia | Inbertsioak |
|-----------|-------------|
| 2006 | 8.130.169 |
| 2007 | 23.972.248 |
| 2008 | 21.995.669 |
| 2009 | 3.885.793 |
| 2010 | 5.808.918 |
| 2011 | 7.099.603 |
| 2012 | 9.785.431 |
| 2013 | 2.744.308 |
| 2014 | 3.320.436 |
| 2015 | 1.542.441 |

2014arekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 54 —hau da, 1,77 milioi euro— egin dute behera. Jaitsiera hori zor zaio 2014an Mugartearen urbanizazioa amaitu izanari.

Honakoak dira 2015ean egindako inbertsio garrantzitsuenak:

| Inbertsioa | Zenbatekoa |
|--------------------------------------|------------|
| Iruñeko etorbideko hoditeria | 82.514 |
| Erretirodunen kluba berritzea | 125.546 |
| Mugartea aldeko kolektorea sendotzea | 214.765 |
| Bilketa pneumatikoa | 180.785 |
| Santxiki udal aretoko obrak | 109.624 |

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

| Deskribapena | Prozedura mota | Esleipen-kontratua | Lizitazioaren zenbatekoa | Eskaintzak egin dituztenak | Esleipenaren zenbatekoa |
|--------------------------------------|----------------|--|--------------------------|----------------------------|-------------------------|
| Iruñeko etorbideko obrak | Obrak | Publizitaterik gabe negoziatua eskaintza onenarentzat | 83.634 | 4 | 68.300 |
| Erretirodunen lokalaren eraberritzea | Obrak | Publizitaterik gabe negoziatua eskaintza onenarentzat | 136.328 | 2 | 132.000 |

Aurreko azterketatik eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin baten gainean egin-dakotik egiaztatu dugu kontratuei buruzko legedia bete egin dela bai kontratazio-espeditenteak izapidetzean, bai haiek esleitzean eta betetzean ere, legearen alderdirik aipagarrienetan, eta kontabilizaturiko gastuak arrazoizkoak direla.

IV.8. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2015eko ekitaldian aitortutako eskubideak 9,31 milioioak izan dira; ehuneko 90 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerei dagozkie eta ehuneko 10, berriz, kapital-eragiketeki.

Diru-sarrera arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak (5,88 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (2,38 milioi eurokoak) nabarmentzen dira.

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetze-maila ehuneko 84koa izan da, inbertsioen besterentzearen betetzea txikia izan delako (ehuneko 17koa) eta gerakinak txertatu direlako. Tributu bidezko diru-sarreraren eta transferentzien kapituluak betetzearen ehuneko ehuna gaitzen dute.

2014. urtearen aldean, aitortutako eskubideak ehuneko 22 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

| Diru-sarreraren kapituluak | Aitortutako eskubide garbiak | | Aldea (%) |
|---|------------------------------|------------------|------------|
| | 2014 | 2015 | 2015/2014 |
| 1. Zuzeneko zergak | 3.671.714 | 3.292.137 | -10 |
| 2. Zeharkako zergak | 365.536 | 463.405 | 27 |
| 3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk | 2.222.786 | 2.122.455 | -5 |
| 4. Transferentzia arruntak | 2.323.449 | 2.371.408 | 2 |
| 5. Ondare bidezko diru-sarrerak | 234.380 | 142.271 | -39 |
| Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era) | 8.817.865 | 8.391.676 | -5 |
| 6. Inbertsioen besterentzea | 1.369.732 | 227.986 | -83 |
| 7. Kapital-transferentziak | 1.681.220 | 694.762 | -59 |
| 8. Finantza-aktiboak | 0 | 0 | - |
| 9. Finantza-pasiboak | 0 | 0 | - |
| Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6.etik 9.era) | 3.050.952 | 922.747 | -70 |
| Diru-sarrerak, guztira | 11.868.818 | 9.314.423 | -22 |

Zuzeneko zergen, tasen eta transferentzia arrunten bitartez lortutako diru-sarrerak nabarmen-tzen dira. 2014ko ekitaldiarekiko alde handienak inbertsioen besterentzeetan daude.

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

| Diru-sarreraren kapituluak | Aitortutako eskubideak | | Aldea (%) |
|------------------------------------|------------------------|------------------|-----------|
| | 2014 | 2015 | 2015/2014 |
| Lurraren kontribuzioa | 1.689.192 | 1.699.601 | 1 |
| Ibilgailuak | 577.477 | 595.572 | 3 |
| Lurren balio-gehikuntza | 902.255 | 508.991 | -44 |
| Jarduera ekonomikoen gaineko zerga | 502.790 | 487.973 | -3 |
| EIOZa | 365.536 | 463.405 | 27 |
| Guztira | 4.037.251 | 3.755.542 | -7 |

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, aitortutako eskubideek ehuneko zazpi egin dute behera, funtsean lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergatik lortutakoek behera egin dutelako; izan ere, aurreko urtekoak baino ehuneko 44 txikiagoak izan dira.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

| Zerga | Udala | 2/95 Foru Legea |
|------------------------------------|-------------|-------------------|
| Lurraren kontribuzioa | 0,17 | 0,10 - 0,50 |
| Jarduera ekonomikoen gaineko zerga | 1,10 | 1 - 1,4 |
| Lurren balio-gehikuntza | | |
| Gaurkotzearen koefizientea | 2,1, -, 3,3 | 2 eta 3,4 bitarte |
| Zerga-tasa | 8-16 | 8tik 20ra |
| Eraikuntza, instalazioak eta obrak | 5 | 2 - 5 |

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontu-sailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

IV.9. HIRIGINTZA

Aranguren Ibarreko Udalak hirigintza-zereginak eta obretakoak bere baliabideekin betetzen ditu; horretan aritzen diren langileak arkitekto tekniko bat, obren arduradun bat eta administrazio ofizial bat dira.

Hirigintza-garapen guztiak lankidetzaren bidez egin dira. Udalak bere gain hartu du haien kudeaketa ekonomiko eta hirigintzako, eta horren truke urbanizazio-gastuen ehuneko lauko diru-sarrerak jaso ditu. Ez da hirigintza-hitzarmenaren figura erabiltzen.

Udalak ez du kanpoko hirigintza-aholkularitza iraunkorrik. Hala eta guztiz ere obratuzendaritzako lanak eta proiektuak idazteko lanak beti kanpoko profesionalak egiten dituzte.

Udalak lurzoruaren udal ondarearen erregistro berriazko bat badauka, zeina kontu orokorren espedienteari gehitzen zaion, hartatik datozen diru-sarrera atxikien jarraipena egin ahal izateko.

Udalak aurkeztutako oroitidazkian, ekitaldian zehar gauzatutako hirigintza-jarduerak zehazten dira. Gaur egun, Aranguren Ibarreko udal plan orokorraren berrikuspina idazten ari da. Udalaren lurraldea okupatzeko estrategia eta ereduak 2014ko maiatzaren 16an onetsi du Nafarroako Gobernuko Sustapen Departamentuak.

2015etik udalerriko herrietan herritarren parte-hartzerako plan bat egiten ari da, eta espero da 2016ko amaieran hari hasierako onespina eman ahal izatea.

Gomendatzen dugu hirigintza-plangintza Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenetara moldatzeko prozesua osatzea.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko azaroaren 23an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga